

Prest!



BERBETAN: MARIA FRANCISCA MAS RIERA TRANSFEMINISTA, ESKALATZAILEA ETA IKERLARIA

ERREPORTAJEA: DEUSTO. IRIBARREN ITZALAK UZKURTU EZ ZUEN ATEZAINA BARKUA: HEZKUNTZA EZ-FORMALA

2-243-244-245-246



Sustatzailea

Verbaizu
— euskara elkarte —

Babesleak



DEUSTO 3 BIZIRIK
Comercios, servicios y hostelería de Deusto



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Jaione Ayestaran - Ibai Etxautz		Iritzia	4	
	Jon Ander Ortuondo		Gureak kanpoan	5	
e	erreportajea Deusto. Iribarren itzalak uzkurtu ez zuen atezaina <i>XX. mendean zehar, futbolarik eta, are gehiago, Athleticen posizio esanguratsua izan dute euskal oroimen kolektiboan. Zentzu horretan, deustuarrok ere badugu zeresanik. Bada, gaurkoan 70. hamarkadan kirol honen mailarik gorenean aritu zen atezain bat ekarri nahi izan dugu gogora: Juan Antonio Deusto; orain dela 50 urte Espainiako selekzioarekin partidu bat jokatzera iritsi zena, alegia.</i>			6	
		Deustuko Eskola		Eskolak	10
	Jakingarriak Santiago Brouard (1816-1870) lorezainaren gainean		Behin batean	12	
	Sarri abestutako kanta himno bilakatu da		Artikulua	14	

b	berbetan MARIA FRANCISCA MAS RIERAekin <i>Eskalada abiapuntu hartuta, Maria Franciscak bere kolaboratzaileen istorio pertsonaletan barrena hausnarketa sakona egitera gonbidatzen gaitu. 'Ingrávidas' bere lehen liburua argitaratu zenetik bizi izan duen prozesuaren emaitza da. Liburuak, poesia, narratiba eta ilustrazioen bidez, kirol honetan izandako bizipenak gai sozial ezberdinekin alderatu eta gizarteak dituen aurreiritzien errealitatera hurbiltzen gaitu.</i>			16
----------	--	--	--	-----------

	Elorrietako Ponpatzailea (1980)		Irudiak berbetan	21
--	---------------------------------	--	-------------------------	-----------

HIZKUNTZA	Haur hizkera, galtzar dagoen erregistroa		barkua bete herba	24
HEZKUNTZA	Hezkuntza ez-formala			
PINTXODROMOA	Kuiatxo-txiki pintxoak			
KULTUR TXOTX	Danel Abando Olabarri eta Leire Carranza Ramirez			

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu

Erredakzioa: Axular Arostegi, Asier Cobos, Jon Ander Ituarte, Itxa Sainz Nuñez, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hektor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errendoko Auzo Etxea, San Inazio Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea, Axular Arostegi, Asier Cobos

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800



Maiazaren Lehena


Osakidetzako sindikatuek protesta egin dute. Pentsiodunak kalera atera dira. Bi greba egun deitu dituzte erresidentzietan. 62 urteko langile bat hil da Azkoitian. Inflazioa % 4,2ra igo da. Greba eguna dute gizarte ekimeneko ikastetxeetan. Volkswagenek hiru egunez etengo du ekoizpena. Hiru eguneko greba Justizia Administrazioan. Interes tasak % 0,25 igo ditu Europako Banku Zentralak. Gazte bat oso larri zauritu da Burlatan izandako lan istripuan. Euriborrak gora egin du. Nafarroako nekazariak laguntzak eskatu dituzte. Langabezia tasa % 8,7ra igo da.

Eta bitartean, Kutxabankek 110,7 milioi euro irabazi ditu. BBVA % 40 hazi da. Eroskik 64 milioiko irabaziak izan

ditu. % 76 gehiago irabazi du Endesak. Iberdrolak 1.485 milioiko langa gainditu du. Espainiako bankuen mozkinak % 13 hazi dira.

Hiru egunez ekonomia-ataleko albisteetan bildutako titularrak dira horiek guztiak. Arrazoirik ez zaigu falta, urtean behin bada ere, kaleak betetzeko. Aurpegira egiten digute barre, eta hala ere, gero eta gehiago dira Maiazaren Lehenaren zain egoten direnak atsedean hartu, lagunekin poteoan irten, etxean garbiketa egin edota furgoneta hartuta, asteburu luzea aprobetxatzeko.

Baina titularrak pilatuz doaz, eta Hego Euskal Herriko biztanleen % 15 pobrezia edo bazterketa arriskuan daude.



Ez du lehengusuak jasoko

Azkenaldian bigarren eskuko arropa eskaintzen duten dendak eta aplikazioak nabarmen hazi dira. Nire inguruan, askok, noizean behin erabili izan ditugu. Azken finean, erraza da bertan gustuko jantziak aurkitzea, eta prezio eta kalitate onean gainera. Horrez gain, dirutxu bat lortzeko aukera ematen die behar dutenei. Denak dirudi ederra, ezta? Bada, ene ustez, badu bere alde iluna.

Ez da harritzekoa pobretze garaitan aipatutako aplikazio edo dendetara jo behar izatea arropak erosteko. Langileek ez badute garai oparoetan beste diru jantzietan xahutzeko, halaberharrez bigarren eskukoak edo kalitate eskasekoak erosi beharko dituzte. Gauza bera gertatzen da iraungitzear

dagoen janaria saltzen duten aplikazioekin, edota beste hainbat produktuekin. Dena da salgarria egungo sisteman, eta denetik atera daiteke diru apurra, eta kontraesankorra dirudien arren baita miseriatik ere.

Ez al duzue gogoratzen zer egiten genuen lehen txiki geratzen zitzaigun arroparekin? Edo jada gogoko ez genuenarekin? Bada, laga edo eman. Senide bati, lagun bati, auzokideren bati, elkarteren bati... Ematen dit, ordea, etorkizun hurbilean behintzat lehengusu-lehengusinek ez dutela txiki geratu zitzaigun izerditako hori jasoko, akaso Vinteden erosi beharko dute jasotzen duten eskupeko edo soldatatzko ziztrinarekin.



Jon Ander Ortuondo

Jatorria: San Inazio

Bizitokia: Oslo, Norvegia

Lanbidea: Nazioarteko merkataritza aholkularia



“Norvegia gero eta herrialde multikulturalagoa da”

Zergatik joan zinen Novegiara?

Iaz Eusko Jaurlaritzak nazioarteko merkataritza bultzatzeko urtero eskaintzen dituen beka-programa batean onartu ninduten; BEINT beka, hain zuzen. Sei hilabeteko prestakuntza-ikastaro bat egin eta gero, bekaren bigarren fasea Euskal edo Espainiar Gobernuak atzerrian duten merkataritza bulego batean urtebetez lan egitea da, eta Norvegia tokatu zitzaidan.

Zenbat denbora aurreikusten duzu bertan geratzea?

Urtarrila hasieran iritsi nintzen, eta abendura arte egongo naiz hemen.

Zaila izan da Osloko bizimodura egokitzea?

“Shock” kulturala itzela ez den arren, Europaz kanpoko herrialdeekin alderatuta, moldatzeko beharra dago. Hasieran, zailena iluntasunera ohitzea izan zen (urtarrilean bakarrik 6 orduz ikusten da eguzki-argia). Gainera, bizitza oso garestia da. Horrez gain, bizitza ez da hainbeste kalean egiten, batez ere neguko hilabeteetan. Hala ere, uda hurbilago dagoen heinean, giroa asko hobetzen ari da hirian.

Aukera izan duzu inguruko herrialdeak ezagutzeko?

Norvegiar gain (Oslo ez ezik, Bergen eta Stavanger ere bisitatu ditut), Suediara joan nintzen asteburu batean.

Nolakoak dira norvegiarrak?

Denetarik dago; nire esperientzian oinarrituta, pertsonalki ezagutu ditudanak jatorrak eta atseginak izan dira. Dena den, ez da erreza atzeritarrentzako norvegiar lagunak egitea. Nahiz eta ingeles maila oso altua eduki, zertxobait itxiak eta hotzak izatera iritsi daitezke kanpotarrek.

Nongoa zaren azaltzen duzuean, Euskal Herria ezagutzen dute?

Batzutan bai. Gazteak batez ere, Euskal Herriko erreferentziak dituzte; adibidez, Bilbo edo Donostia bisitatu dutelako, edo euskal futbol taldeak ezagunak egiten zaizkielako prentsagatik.

Zein da atzeritarrekiko duten iritzia?

Orokorrean begi onekin ikusten dute immigrazioa eta atzeritarrrak. Azken urteetan, Norvegia gero eta herrialde multikulturalagoa da, eta hiri handietan, Oslon bereziki, normaltasunez bizitzen da dibertsitate hori.

Zer da oraingoz Norvegiatik gehien gustatu zaizuna?

Alde batetik, herrialde ederra da natura aldetik. Aukera ugari daude dauzkaten baso, aintzira, fiordo eta mendietaz gozatzeko, beraz paisaiari dagokionez, Europako herrialde hunkigarrienetariko bat da. Bestetik, lana eta aisia edo denbora librearen arteko oreka oso ona daukate norvegiarrek, lan-eskubideak oso garatuak daude.

Somatu ahal izan duzu antzekotasunik euskal kulturarekin?

Mendizale amorratuak dira. Bestalde, Euskal Herria bezala, itsasoarekin harreman handia dute, historikoki.

Zein hizkuntzatan harremantzen zara bertan?

Lantokian gazteleraz, laneatik kanpo ingelesez, norvegiar pixka bat ikasi dudana arren.

Zer ari zara faltan botatzen gehienbat?

Maite dudana jendea gertu ez izatea, bereziki nire bikotekidea, familia eta lagunak. Horretaz aparte, etxeko janaria ez ezik, kaleko giroa, poteatzeko ohitura eta abar.



Athleticen entrenamendua San Mamesen 1968an.

DEUSTO. IRIBARREN ITZALAK UZKURTU EZ ZUEN ATEZAINA

XX. mendean zehar, futbolak eta, are gehiago, Athleticek posizio esanguratsua izan dute euskal oroimen kolektiboan. Zentzu horretan, deustuarrok ere badugu zeresanik. Bada, gaurkoan 70. hamarkadan kirol honen mailarik gorenean aritu zen atezain bat ekarri nahi izan dugu gogora: Juan Antonio Deusto; orain dela 50 urte Espainiako selekzioarekin partidu bat jokatzerara iritsi zena, alegia.

Testua: Axular Arostegi **Argazkiak:** Archivo Fotografico Fundacion Malaga CF, Athletic Club Museoaren agiritegia

1946ko urtarrilaren 8an jaioa, patuak hala nahi izan balu bezala, Deusto bere abizena zuen herrian hazi eta hezi zen. Garai hartako Deustualdeko beste zenbait umek egin zuten moduan, La Salleko ikastetxean ikasi zuen eta bertan eman zituen bere kirol ibilbideko lehen urratsak.

Gerora, Athleticeko jubeniletara iritsi zen. Garai haietan, 60. hamarkada hasieran, Lezama oraindik eraiki gabe zegoenez, entrenamenduak Mallonan eta Etxebarrin egiten zituzten. Zurigorrien beheko kategorietan egin zituen urteetan, 1963 eta 1964an Espainiako txapelketa irabazi zuen. Hurrengo urtean, 1964-1965 denboraldian,

historiako lehendabiziko Bilbao Athleticen jokatu zuen. Era horretan, nerabe garaian lortutako emaitza onei esker, lehen taldera iritsi zen.

Deustuar honen kasua ulertzeko, nahitaezkoa dugu orduko futbolaren ezaugarriak haintzat hartzea. Garaiko futboleko jokalariek soldata onak irabaztera iritsi zitezkeen ere, ez ziren, inolaz ere, gaur egungoek irabazten dituzten dirutzak lortzera ailegatzen. Era berean, telebista etxean izatea horren ohikoa ez zenez, azken finean, esan liteke Deusto futbolaria izan zela futbolak oraindik herritar izaera zuen garai batean.



1963an Camp Noun Espainiako lehen txapelketa irabazi zuen Athletic jubenilen hamaikakoa, Athletic 2 - Real Madrid O.

Mitoaren itzalpean

Deusto Athleticeko lehen taldera iritsi zenerako, 1965-1966 denboraldian, Bilboko taldeak bere historian inoiz izan duen atezain onenarekin egin zuen topo: Jose Angel Iribar. Izan ere, aditu askorentzako, zarauztarra Espainiako ligan ez ezik, munduko atezainik onenetarikoa zen ordurako; 1964an espainiar selekzioarekin Europako txapelketa irabazi baitzuen, hain zuzen.

San Mameseko taldearekin egin zituen 5 denboraldietan, 13 partidu jokatu zituen orotara. Alabaina, Iribarren aparteko sasoiak ia aukerarik gabe utzi zuen. Edozein kasutan, Athleticeko jokalaria izan bitartean, 1969ko Errege Kopa irabazi zuen taldearen parte izan zen. Garaipen horri esker, euren txapelketarik kuttunena 11 urtez irabazi gabeko boladari amaiera eman zioten zurigorriek.

Aukera baten bila

Bilbon zituen aukera murrizten ondorioz, lehen mailako beste talde batera joatea erabaki zuen. Hala, goren mailako talderen batean titular izateko asmoz, Deustok Malagako Futbol Taldearekin aritzeko kontratua sinatu zuen 1970-1971 denboraldian; garai hartan lehen mailan zegoena, hain zuzen.

Talde andaluzean bere ibilbide profesionaleko urterik oparoenak bizi izan zituen, 1972-1973 denboraldian Zamora saria irabazteraino; denboraldi baten Espainiako ligako txapelketan gol gutxien jaso dituen atezaina saritzen duena, hain zuzen. Urte hauetan erakutsitako sasoi bikainak 1973ko azaroaren 24an espainiar selekzioarekin Alemaniako selekzioaren aurka jokatzera eraman zuen.



Malagako jokalaria zela 1973an ateratako argazkia.

Malagan oroitzen gozoa utzi zuen Deustok. Izan ere, taldearen historian bera izan baita inoiz Zamora saria irabazi duen atezain bakarra. Hiri andaluzean gogoan dute oraindik 1974an Athleticen aurka jokatu-tako Errege Koparen finalerdi hura. Deustuarra Malagako Futbol Taldean zegoela lehen taldeko bigarren entrenatzaile zen Abdallah Ben Bareken arabera, “Deusto hemen egon zen garaian, nik atezainak entrenatzen nituen bereziki. Hala, beragandik zeozer azpimarratu beharko banu, bere seriotasuna azpimarratuko nuke, argi eta garbi; sekulako profesionala zen, plazer hutsa da euren jarduna zorroztasun horrekin hartzen duten jokalariekin lan egitea”.

Lehen mailari eusteko gogoia

Zenbait urte geroago, behin Malaga bigarren mailara jaitsi zenean, Alacanteko Hercules Futbol Taldera joan zen 1975-1976 denboraldian. Gauzak horrela, Deustok Valentziako taldean esan zion agur futbolari. Bertan jokatu zituen 5 urteetan zehar, 69 partiduetan parte hartu zuen. Azken etapa honetan, Miguel Angel Santoro argentinar selekzioko atezainarekin lehiatzea egokitu zitzaion.



Enrique Sala bere taldekidea izan zen Her-culeseko fase honetan. Adierazi digunez, “Bera iritsi zenean ni jubenilen taldean nengoan eta lehen taldera igo ninduten hirugarren atezain bezala. Pertsonalki, oroitzen ahaztezinak ditut Juan Antoniotaz. Asko ikasi nuen berataz eta beti egon zen hor behar izan nuenean”.

“Alacantera iritsi zenean, eskarmentu handiko atezaina zen dagoeneko. Beraz, mito bat bezalakoa zen niretzako. Area txikian zituen dohainen artean nik berezkoa zuen hanketako abiadura nabarmenduko nuke inongo zalantzarik gabe”.



“Deusto futbol talde honek inoiz bizi izan duen boladarik oparoenaren parte izan zen. Horregatik, hirian itzala utzi zuela esango nuke”.

Era horretan, 1980an Juan Antonio Deustok bere jokalaria ibilbide profesionalari amaiera eman zion. Guztira 15 urte eman zituen espainiar estatuko futbol mailarik gorenean, 226 partidu jokatu.

Bizitza arrakastatsu baten amaiera

Ez da beti erreza izaten goi mailako kirolarientzat euren lekua aurkitzea, behin urrezko kirol garaiak bukatu eta gero. Gainera, Deustoren garaioko jokalariek irabazten zuten soldata gaur egungoekoen zerikusirik ez zutela kontuan hartuta, ohikoa zen bizimodua nola ateratzeko zalantzak eta kezkak izatea; izan ere, gaztaro osoa futboleko soilik aritu izan bazara, zer eskaini diezaiokezu zuk lan munduari?

Juan Antonio Deusto Bilbon hil zen 2011ko uztailaren 21ean. Hala ere, Prest!-en 2002ko maiatzean berarekin hitz egiteko aukera izan genuen. Elkarrizketan, bere kirol ibilbide osteko boladaz hitz egin zigun, “Alacanten bost denboraldi eman ondoren jokatzeari utzi nion eta han geratzea erabaki nuen. Otsailaren 23ko altxamendu saiakera gertatu zenean Hercules klubeko bingoarean ardura eramaten nuela

gogoratzen dut. Bizitzaren gorabeherak medio banandu nintzen eta Kanariar uharteetara joan nintzen lan egitera. Han hamar urte eman nituen eta azkenik, hainbeste urte eta gero Deustura itzuli nintzen”.

Bere bizitzako azken urteei dagokienez, elkarrizketa egin zitzaion garaian Bidarte auzo-etxeko kafetegian lan egiten zuen. Azkenik, jokalaria deustuarraren ezagunekin hitz egin eta gero, jakin ahal izan dugu gaur egun “3 B Black Bar Bilbo” taberna dena eramazuela zenbait urtez.

Era horretan, futboleko partiduak telebistatik nekez ikusten ziren garai hartan hazi eta hezitako gizona, bere bihotzeko kirola telebistako ikuskizun izaterainoko ibilbidea ikusi ahal izan zuen bere azken urteetan. “Gaur egungo gizarteak gehien baloratzen duena dirua da eta hori ez da futbol jokalarien errua, guztiona baizik”.

Halaber, atezain ohiak haurtzarotik bere futbol jokalaria ibilbidea bukatu arteko denbora tartean Deustoko herriak bizi izandako aldaketak oso presente zituen. “Orain Deustua oso bestelakoa da. Nik ezagututako ubiderik gabeko Deustua gehiago gustatzen zitzaidan (...) Lehen nahiz eta auzoa izan ere, jendeak deustuar kontzientzia handia zeukan eta jende guztiak elkar eza gutzen zuen”.



Prestek Juan Antonio Deustori 2002an eginiko elkarrizketako argazkia.



BILBOKO UMEEN ETA NERABEEN II. PLANA - BILBOKO UDAL KONTSEILUA -

Aurreko ikasturteetan bezala, aurten ere, CEIP Deusto HLHI-k Bilboko Udalak antolatutako Haur eta Nerabeen Udak Kontseiluak proposatutako ekintzetan parte hartu du ikastetxeko Lehen Hezkuntzako bi ikasleren lanaren bitartez: Olga Rodriguez eta Jestin Narvaez.



Testua eta argazkiak: Deustuko Eskola

Otsailean, uriko alkate den Juan Mari Aburtok Umeen eta Nerabeen II. Udak Plana aurkeztu zuen Basurtuko “La Perrera” zentro soziokulturalean. Alkatearekin batera, Umeen eta Nerabeen Udak Kontseiluko ordezkari guztiak (horien artean Olga eta Jestin), udal sailetatako langileak eta eremu horretako eragile eta entitateak egon ziren.

Hala, Plan berria 2025era arte indarrean egongo da. Umeen eta Nerabeen Udak Kontseiluko kide diren 46 haurren laguntzarekin eginiko egitaraua, Bilboko ume eta nerabeen egoerari buruzko diagnostikoan oinarrituta, (2021ean egin zuten, 1.000 adingaberen ekarpenekin) Bilboko Haur eta

Nerabeen Plan berri hau aurrera eramateko hainbat dinamika egin dituzte ikasturtean zehar. Horiek gerora euren ikasgelako ikaskideei kontatu dizkietanak, hauek ere prozesuaren berri izateko. Gainera, ekintza hauetan zinetotzi eta sail desberdinetako arduradunekin ere aritu dira.

Ikasturte osoan zehar burututako ekintza eta bilera hauetan, beste ikastetxeetako ikasleekin elkarlanean aritu dira, batzordeetan antolatuz, haiek aukeratutako gaiak aurrera eramateko. Gai hauek, Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat etorri dira, eta Bilbo hiria izan dute abiapuntu eta testuinguru bezala gaiak jorrazteko.



Orokorrean, esperientzia esanguratsua izan da Udal Kontseiluan burututako dinamika- parte hartzea, modu kooperatiboan lan egiten trebatu direlako ikasleak, bere ikasge- lakoak ez diren ikaskideekin; izan ere, ikus- puntu desberdinez oartzeko lagungarria izan zaie. Ziur gaude hurrengo ikasturteetan ere parte hartu eta, gure modura behintzat, Bilbo eta bere auzoak hobetzeko laguntzen jarraituko dugula.



Bestalde, hilabete honetan, bigarren osoko bilkura ospatu izan dute Bilbo Rocken, ikas- turteko ondorioak aurkeztu eta parte-hartze diplomak banatzeko. Udaletxeko ordezkari desberdinak ikasleekin egon ziren jardunaldi horietan, eta modu oso positiboan balara- tu zuten egindako esfortzua eta lana.

HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA 22-23: II. OSOKO BILKURA

2023/01/11 1.ngo LAN BATZORDEA

2025eko Bilbo Hiria (eta kuzketa)

2022-11-29 2. LAN BATZORDEA

2023-02-08 3. LAN BATZORDEA

2023-04-19 4. LAN BATZORDEA

2023-05-11 5. LAN BATZORDEA

2022-12-14 6. LAN BATZORDEA

2023/03/22 7. LAN BATZORDEA

INGO LAN BATZORDEA

2. LAN BATZORDEA

3. LAN BATZORDEA

4. LAN BATZORDEA

5. LAN BATZORDEA

6. LAN BATZORDEA

7. LAN BATZORDEA

IKERKETA

UPV EHU LEIOA & TOLDOA

- Metodologia jostagarriak
- Aintzat hartzea erandakoa
- Azalpen errazak

ANTZERKIARI

ALBISTEGIA

DIPLOMAK

AGUR & ONGI ETORRI!

MIRIBILAK KONGRESUA

ELKARBITZA & segurtasuna hobetzeko PROPOSAMENAK

IRAKASLEEN KONGRESUA

ANTZERKIARI

ALBISTEGIA

DIPLOMAK

AGUR & ONGI ETORRI!

1. CIENCIA FRICION (AZ)

2. SEGURANTAN ELKARLANAN!

3. zelan lagundu udaltzainak?

4. zer egin hiritar gisa?

5. zelan lagundu udaltzainak?

6. zelan lagundu udaltzainak?

7. zelan lagundu udaltzainak?

Puntu luak: Droga- Lapurreak- Mehatzak- Mozor beldurgarriak- Eraso sexistak- jipolak- Bandalismoa- Zikinkeria- Zakur kakak- Kotxeen abiadura- Bullying-a eta Irakasleen prestakuntza- Desfibriadoreak- Poliziari eta anbulantzien koordinazioa

Armarik ez - auto gutxiago- mugikor gutxiago-natura gehiago- salatu - errespertatu - birziklatzea eta garbiki izatea

Zelak lagundu udaltzainak?

Zaratak, zikinkeriak, lapurreak eta erasoak salatu.

Prestakuntza gehiago ikastetxeetan. Kontrol gehiago

Nola komunikatu gaitzete?

Abisu-botoiak. Sare sozialak. Telefono-kabinak. Autobus-gidarien lanikidetzak. 092 eta 112. Taxi-tentak eta anbulantziak abisua. Komisariak.

Eskerrik asko

AGUR & ONGI ETORRI!

MAIATZA PREST! 246

11



JAKINGARRIAK SANTIAGO BROUARD (1816-1870) LOREZAINAREN GAINEAN

Jacques Brouard gisa jaio zen Okzitaniako Tolosatik 60 kilometrora dagoen Montesquieu-Volvestre herrian eta Santiago Brouard moduan zendu zen Deustuan 54 urte geroago. 1984an ibaiatz bestaldean Espainiako Gobernuaren heriotza-eskuadroiek hil zuten Santiago Brouard bere birbiloba zen.



Irabien baserria.

Testua: Hektor Ortega

Egunotan lerroon ondoan ikus dezakezuen iragarria zabaldu du tuitarren Galder Gonzalez wikilariak. Eta aitzakia polita eman digu Brouard hori nor izan zen eta Deustuarekiko bere loturaren gainean ikertzeko. Eskerrak eman nahi dizkiogu Brouard sendiari helarazi digun informazioagatik.

Jacques Brouard Bergeret Frantziako Garona Garaia departamentuko Montesquieu-Volvestre herrian bataiatu zuten 1816an. Okzitaniako udalerrriak hiru mila bat biztanle zeuzkan sasoi hartan. Haren gainean bildu dugun hurrengo albisteak Euskal Herrian jarri du, oraindik ere Jacques izenari eutsita: Baionan ezkondu zen 1847ko apirilean Claire Puyt Bouberekin. Claire edo Klara, nafarra zen, Donapaleun (Nafarroa Beherea) jaio baitzen 1828an.

Hurrengo urterako, berriz, Bizkaian zeuden. Izan ere, lehenengo alabari (Klemenzia) 1848ko urriaren 21ean eman zioten bataioaren grazia Abandoko Done Bikendi elizan. Alegia, Abandon bizi ziren senar-emazte berriak. Bigarren umea (Pedro Jose) ere, Abandon bataiatu zuten, 1849ko abenduaren 2an. Sasoi hartan Santiago Brouardek errentan zeuzkan zenbait lursail, Abandoko Kontzepzio komentu izandakoaren ortua, esate baterako. Izan ere, lorezain jarri zen lanean eta laster lortu bide zuten jarduera horretan ospea eta itzala.

Itzala, haren zuhaitzek eman behar zutena esango luke zirtolari batek. 1852an Bizkaiko Foru Aldundiak Kontzepzio komentuko bere ortuko landareak eta zuhaitzak erosi zizkion, 30.000 erreal ordain-

duta. Mintegi hartan zuhaitz asko zeuzkan, hala fruta-arbolak nola apaingarriak, baita zuhaixkak eta landareak ere.

Salmentarekin batera, beste akordio bat sinatu zuen Aldundiarekin: erakundeak Erandion abian jarri nahi zuen nekazaritza eskolako zuzendari izendatu zuen. Aldundiak hiru baserri alokatu zituen eta landareak zelan hazi ikasteko eskolak ematen hasi ziren, Brouarden ardurapean. 1852 eta 1860 bitartean jardun zuen zeregin horretan, baina eskolaren ibilera ez zen izan sustatzaileek nahi zuten modukoa, batez ere gastu handiak eragin zituelako.

Erandiotik Deustura

50eko hamarkada hartan Erandioko auzoa izan bazen (bertan jaio ziren Juan Antonio -1855- eta Dolores -1857- seme-alabak), 1860tik aurrera Deustuan erroldatu eta bertan bizi izan zen Santiago Brouard. Eta, jakina, harekin andre Klara eta seme-alabak. Izan ere, 1858an Deustuko Irabien baserria hartu zuen errentan. Etxaldeak etxebizitza, korta, arloak eta lorategia zeuzkan. Berriz ere, lorezainak zuhaitz eta zuhaixka mintegia sortu zuen.

Langintza horretan bere itzala are gehiago zabaltzeko, urte hartan bertan liburuxka argitaratu zuen, testu honekin batera ageri dena. "Cultivos de Santiago Brouard jardinero, miembro de una academia de horticultura, corresponsal de varias sociedades agrícolas etc. Establecido cerca de Bilbao en el barrio de Basabe, en Deusto".

Liburuaren hasieran bere bizitzaren lauzpabost kontu aitatu zituen (Bilboaldera hamabi urte lehenago heldu zela, hogei urte zeramatzala lorezaintzan, Erandioko eskolako arduradun jardun zuela, espezie berriak ekarri zituela...). Eta,

jarraian, aholku batzuk eta zuhaixka eta fruta-arbola batzuen prezioak jaso zituen.


Irabien egon bitartean, Brouard familia nabarmen handitu zen. Hemen bataiatu zituzten Klara (1861), Kasiana (1864) eta Agustin Alberto Rafael (1870). Klara eta Kasiana laster hil ziren lau eta bost urterekin hurrenez hurren.

Santiago Brouard bera azken semea jaio eta hiru hilabetera hil zen, 1870eko maiatzean alegia, Deustuan, 54 urte zituela.

Areatzako ezkia

Bilboko Udalak Areatzako ezki historikoaren inguruan zabaldu duen informazioaren arabera, Santiago Brouardek landatu zuen 1809an, eta 1816an eraman zuten jatorrizko lekutik Areatzara. Baieztapen hori ez dator bat gure ikerketarekin, Santiago Brouard Bergeret, esan legez 1816an jaio zelako Garona Garaia departamentuan eta Bilbora 1848an heldu zelako.

Baieztatuta dago, oster, Santiago Brouard Bergeret izan zela Santiago Brouard Perezen birraitona. Juan Antonio semea Benita Madariagarekin ezkondu zen. Haien seme Santiago Dorotea Perezekin ezkondu zen eta horiek izan ziren, hain zuzen, Santiago Brouard Perezen gurasoak.





Kalderapeño
euskal kultur gunea

www.kalderapeho.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

2023KO MIKROIPUIN LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

MARKEL BILBAO ANDRÉS

INTXIXU IKASTOLA HLHI - LH 6.B

JAXINTO BELDURTIA

Bazen behin Jaxinto deitzen zen ume bat, gauaren eta munstroen beldur zena. Gau batean, ezin zuen loak hartu, eta bat-batean soinu bat entzun zuen, sukaldetik etorria. Zer zen ikustera joan zen Jaxinto, bere eskuargiarekin, beldur handia zuen arren. Sukaldera heltzean, begiratu zuen eta, bai zera! erlojua zen tik-tak egiten. Orduan, ohera bueltatu zen, pixka bat lasaiago.

Minutu batzuk geroago, beste soinu bat entzun zuen, lehengoa baino gogorragoa, gurasoen logelatik zetorren. Jaxinto, zer zen ikustera joan zen. Azkenean, bere aita zela konturatu zen, zurrungaka zegoela. Orduan, Jaxinto bere logelara bueltatu zen. Handik ordu bat geroago, beste soinu bat entzun zuen, burdin batena zirudien, eta logelatik zetorren. Eskuargiarekin joan eta... Kontxo! Hamsterra baino ez zen. Jaxinto lotara joan zen berriro, baina, bai zera! goseti samarra zenez Jaxinto, gosea sartu zitzaion eta sukaldera joan zen. Armairutik gailera pare bat hartu zituen, komiki bat ere hartu zuen entretenezko eta ohean geratu zen, eskuargiarekin.

Azkenean, Jaxintok lo hartu zuen eta lo geratu zen komikia gainean zuela eta gailera apurrekin pijamaren gainean.

Hurrengo egunean, Jaxinto esnatu eta gosaltzera joan zen aita eta amarekin batera eta gauekoa kontatu zien... Aita eta ama barrezka hasi ziren eta amak eskolara eraman zuen.

ANE UGALDE SIERRA

ARANGOITI HLHI- LH 6.A

ALDAKETAK

Urte berri bat , aldaketa desberdinak eta guztiak urduri jartzen naute. Baina, urdurien jartzen nauena institutura joatea da. Pentsamendu guztiak aldaketak adierazten dituzte.

Egun batean, nire sentimenduak nire lagunei azalaratu nizkien. Ni bezala ez zirela sentitzen eta arraro begiratuko zidatela uste nuen. Baina guztiak urduri geundela konturatu nintzen. Gu ez ginen ausartzen inori esatera, baina gure sentimenduak lagunei kontatu genizkionean... lasaitasun ederra! Bakoitza bere beldurrekin: eskolaz aldatuko gara (esan zuen batek), gero eta gutxiago ikusiko dugu elkar (besteak)... Sesio hori eta gero, beldur gutxiagorekin joan ginen etxera, bagekielako edozer gertatuko zela ere batak bestearen babesa zuela. Institutuko lehen eguna heldu zenean beldurrak geldiarazten gintuen eta ez geneukan ibiltzeko indarrik. Txirrinak jo zuen eta tximeletak sentitu nituen sabelean, baina aurrera jarraitu behar genuen, ezin ginen hor gelditu. Gauza asko gertatu zitzaizkigun orain atzera egiteko: barreak, negarrak, haserreak...

Orduan, aurrera pauso bat eman behar genuela argi eduki genuen. Eta momentu horretan... bide berri bat sortu zitzaigun.

HEGOI SOBRINO ALONSO

SAN INAZIO BHI - DBH 2B

SUA

Sua oso beroa da, horregatik bere ikastolan inork ez du berarekin jolastu nahi. Orduak eta orduak geratzen da bakarrik. Urteak horrela pasa eta gero, maltzurra bihurtzen da eta suteak egiten ditu. Basoak erretzen ditu, etxeak erretzen ditu... baina egun batean konturatzen da egiten duena oso gaizki dagoela eta pizzeria bat sortzen du. Bere auzoan oso famatua bihurtzen da eta, horren ondorioz, bera ere famatua bihurtzen da eta lagun asko egiten ditu.

UNAI URIA

DEUSTUKO IKASTOLA - DBH 4B

AIZKOLARIA

Bazen behin aizkolari bat lan asko egiten zuena. Egunero goiz-goizean esnatzen zen, basora abiatzen zen zuhaitzak moztera, eta gauean, enborrekin etxera itzultzen zen. Egun batean, etxerantz zihoala, ezin zuen jarraitu eta amore eman zuen. Ez zuen horrela jarraitu nahi eta heriotzari deitu zion. Bost minutu pasa ondoren bertan agertu zen eta, aizkolariak, biritan pentsatu ostean, zera esan zion:

- Lagunduko al didazu enborrak eramaten?

ALAIYAÑEZ

BOTIKAZAR BHI - BATXILERGOA 1B

HALLOWEENKO EZUSTEKOA

Halloween garaia heldu zen azkenean, ez zen nire gustukoena, baina une egokia bazen lagunekin egoteko. Gau hartan erabaki nuen haiekien joatea zelai berde batera izarrak ikustera. Lasai geunden, kezkarik gabe. Bat-batean erraldoi batzuk agertu ziren eta haiekin eraman ninduten. Ikaratuta nengoen. Ondoren, azal zatiak moztzen hasi zitzaizkidan, zulatzen eta babesgabe uzten. Barruko organoak kendu zizkidaten ere, saltzeko, agian? Halere, erraldoiak pozik eta barrezka zeuden. Orduan, han konturatu nintzen, haientzat denbora-pasa bat bakarrik nintzela, tradizio bat... etxea apaintzeko kalabaza bat.



SARRI ABESTUTAKO KANTA HIMNO BILAKATU DA



Joseba Sarrionandiak Ibarrekolandako BHIIn antolatutako ikuskizun poetikoan parte hartu zuen, joan den maiatzaren 5ean.

Testua eta argazkiak: Axular Arostegi

Iurretako idazleak eta Ikastetxeko ikasleek aparteko ikuskizuna eskaini zuten, poetaren ibilbidea eta beste zenbait gai jorratuz. Berarekin batera, Ainhoa Correa zentroko irakasleak eta Amets Kortazar batxilégorko 2. mailako ikasleak mahai-inguru bat osatu zuten. Ekitaldian zehar, ikasleek Sarrionandiaren testuetan oinarritutako kantak abestu zituzten; urteetan zehar hamaika abeslari euskaldun desberdinek abestu dituztenak, alegia.

Hala, Ibarrekolandako ikastetxean antolatutako ekintza kultural honetan, besteak beste, Fermin Muguruzaren “Eguraldi lainotsua hiriburuan”, Ruper Ordorikaren “Martin Larralde” edota Ken 7ren “Hemen gaude” bezalako abestiez gozatze-ko aukera izan zuten bertaratutakoek. Horretaz gain, iurretarrak bere ibilbide pertsonaleko zenbait pasarte aipatu zituen, mahai bueltan atera ziren gai desberdinei heltzeko.

Poetaren barne hizkuntza

Euskarari dagokionez, bizitzan zehar euskal hizkuntzarekin izan duen harremana berrikusi zuen. Bada, haurtzaro eta gaztaroko urteetan euskararekin bizi izandako egoera kontraesankorra gogorarazi zuen: “Nire gazte denboran, euskara mendiko hizkuntza zen; hirietan, aldiz, erderaz hitz egin behar zen, derrigorrez (...) 14 urterekin euskal alfabetatze kurtso batean (gau eskola) izena

ematea erabaki nuen, euskaraz idazten ikasteko eta aiton-amonekin hitz egiteko, haiek ez baitzekiten erdaraz”.

Deserria. Kontzeptu bakarra, hamaika esanahi Ekitaldiaren gonbidatuak atzerrian pasa dituen urte kopurua aintzat hartuta, erbestea, atzerritar edota migrazioa bezalako hitzek aparteko presentzia izan zuten. Era horretan, poetak deserriaren kontzeptuak historikoki izan duen bilakaerari egin zion erreferentzia. Gainera, Afrika eta Ameriketako emigrazioaz hitz egiterako orduan, herrialde horietan bizitza duin bat garatzeko ezintasunean jarri zuen fokoa; batik bat, emigrazio hori kolonialismoaren ondorio zuzen bat bezala deskribatuz. Ildo horretan, bere bizipen pertsonalei beste behin helduta, teknologia berriek herrimin hori arintzeko duten ahalmena nabarmendu zuen.

Mundu azeleratu baten baitan

Sarrionandiak erbesteratu aurretik ezagututako gizartea eta gaur egungoa alderatu zituen, egungo testuinguruan bizi dugun azelerazioa azpimarratzeko. “Gaur egungo teknologiari esker, telefonoan minutu bateko bideo bat ikusi eta gero, uste dugu gai horretaz badakigula zeozer (...) Horrexegatik, nire iritziz literatura beste erritmo batera aurrera eramateko ekintza bat da, birpentsatzeko, ideiak konpartitzeko”.

berbetan

MARIA FRANCISCA MAS RIERAekin

Transfeminista, eskalatzalea eta ikerlaria

“Escalantes”-ek hazi bat erein zuen, eta

Eskalada abiapuntu hartuta, Maria Francisca Mas Rierak (@escalantes.libro) bere kolaboratzaileen istorio pertsonaletan barrena hausnarketa sakona egitera gonbidatzen gaitu. 'Ingrávidas' bere lehen liburua argitaratu zenetik bizi izan duen prozesuaren emaitza da. Liburuak, poesia, narratiba eta ilustrazioen bidez, kirol honetan izandako bizipenak gai sozial ezberdinekin alderatu eta gizarteak dituen aurreiritzien errealitatera hurbiltzen gaitu.



hazi hori hazten ari da ‘Ingrávidas’-ekin”

Beti lotu duzu eskalada gai politiko eta sozialekin?

Ez, aldaketa inoren mende eskalatzea nahi ez izatearen erabakitik etorri zen. Autonomia hori lortu nahian, genero-ikuspegia hartzen edo eskalada politizatzen hasi nintzen. Uste dut, halaber, gizarteak irakurtzen duen eta identifikatzen naizen generoagatik diskriminazio eta bizipen jakin batzuei lotuta nagoela, eta kirol hau ere ez da diskriminazio horietatik at. Orduan hasten zara jarrera kritikoa hartzen. Azken finean, eskalada gure sozializatorako beste gune bat da eta; ez da diskriminaziorik gabeko burbuila idiliko bat.

Esan duzu inguru politikoago batean mugitzen hasi zinela, neurri batean zure bizipenengatik. Noiz erabaki zenuen ‘Escalantes’, lehen liburua, idaztea?

‘Escalantes’ master amaierako lanaren bilakaera izan zen: emakumetzat hartutako eskalatzaileek, nolabait esanda, genero-binarismoarekin apurtzeko moduari buruzko azterketa. Beraz, gizon edo emakume kategoria estanko eta binario horretan sartzen ez diren gorputz eskalatzaileen ingurukoa zen. Pena handia ematen zidan material hori ahaztuta geratzeak. Hala ere, lana bukatu nuenetik liburua publikatu nuenera arte denbora dezente pasa zen. Emakume eskalatzaile horiei egindako lau elkarrizketak oso prozesu pertsonal aberasgarria eta hunkigarria izan ziren niretzat. Orduan, emakume

gehiago elkarrizketatzen hasi nintzen, eta horrekin sortu zen lehen liburua hau. Horren ondorioz, beraz, sortu zen ‘Escalantes’; ahots asko batzen dituen ikerketa, alegia.

Nolakoa izan zen lehen liburua honen harrera?

Harrera ikaragarria izan zen. Itxaropenik ez nuela esango banizu, gezurra esango nizuke. Baina liburuak mugitu duena nik noizbait imajinatu ahal izan dudana baino askoz gehiago izan da. Identifikatuta sentitu den jendea aurkitzea edo, kasu honetan, beste emakume batzuen bizipenetan ahizpatasuna aurkitu ahal izateko behar horretan laguntzea ikaragarria da. Jende askok zalantzan jartzen genuen gai bati buruz idazteko premia handia zegoela sentitzen dut; antzeko jendearen artean bizi eta partekatu genituen esperientziak mahai gainean jartzeko beharra, hain zuzen.

Handik gutxira ‘Ingrávidas’ argitaratu duzu, bigarren liburua. Lehenengoaren jarraipena dela esan daiteke, kirolarekin lotutako antzeko gaia sozialak lantzen dituzulako. Zer aurki dezakegu bigarren honetan?

Liburu anai-arrebak dira, baina oso desberdinak. ‘Escalantes’ ikerketa-prozesu bat da, eta 20 emakumeren ahotsak elkartzen ditu eskaladan izandako esperientziei buruz hitz egiteko. Parte hartzen duten pertsona guztiak emakume gisa identifikatzen dira. Zentzu horretan, gabezia asko ditu. Ez dago

“Identifikatuta sentitu den jendea aurkitzea edo, kasu honetan, beste emakume batzuen bizipenetan ahizpatasuna aurkitu ahal izateko behar horretan laguntzea ikaragarria da”


“DDT Banaketak-ek autogestiotik lan ederra egiten du”

Elkarlanerako gunea, baita produkzioan ere. Nolakoa izan da prozesua eta harremana DDT Banaketak erakundearekin?

DDT Banaketak 1989tik ari da musika eta literatura proiektuak bultzatzen, betiere autogestiotik lan ederra eginez. Mugimenduaren parte den lagun batek ‘Escalantes’-en zirriborro bat eskatu zidan argitara zezaketen ikusteko. Erantzuna positiboa izan zen eta, argitalpenaren ondorioz, nik ere kolektiboan parte hartzea erabaki nuen. Izan ere, kultura beste ikuspegi batetik sustatzen duen proiektu handia da. Horregatik, ‘Ingrávidas’ argitaratzeko eredu berari jarraitu diogu eta horrela lanean jarraitu nahi dugu.

“Lanean jarraitu nahi dugu”... Hirugarren liburu bat argitaratzea aurreikusten duzu?

Denbora faltagatik, lankide batzuen artikuluak azken edizio honetatik at geratu ziren. Horregatik, aldizkako argitalpen motaren bat sortzea gustatuko litzaidake, ez du zertan liburu formatuan izan behar. Fanzine bat izan liteke, aldizkari bat... ez dakit. Baina kirolaz eta transfeminismoaz hitz egiteko gune bat sortzea gustatuko litzaidake. Inguratzen gaituenaren azterketa sakona egiteko. ‘Escalantes’-ek hazi bat erein zuen, eta hazi hori hazten ari da ‘Ingrávidasekin’.



DDT BANAKETAK

1989tik
kontrola
bultza



lekurik identitate disidenteentzat edo gizartean onartutako araeuekin bat ez datozen gorputzentzat. Orduan, ‘Ingrávidas’ lehen liburuaren ondorioa da. Lehenengoaren gai nagusia generoa da, kategoria binarioaren barruan. Bigarrenarena, berriz, gorputza. Horretan, beraz, badira parte hartzen duten beste gorputz eta identitate batzuk dituzten pertsonak.

‘Ingrávidas’, bizipenen edo ideien katarsi gisa, gordofobiaren analisi kritikoa egiten du. Kritika hori beste kirol batzuetara ere eraman daiteke.

Erabat. Kirol askotan tabua izaten jarraitzen du. Nahiz eta tabu sozial hori saihestu, hainbat arlotan eragiten du, kirolaz haratago. Horrez gain, osasun mentalaz ere hitz egiten da liburuan. Zehazki, eskaladan erabateko garrantzia du helburuak, prozesua edo sakrifizioa alde batera utzita. ‘Ingrávidas’-en beste ikuspuntu batetik lantzen da. Gorputzez ari gara, eta ez gorputz lodiez bakarrik. Pertsona batzuek edo besteek espazioa nola okupatzen dugun, depresio batek zeharkatzen zai-



tuenean zer gertatzen den eta askorentzako eskalada horri aurre egiteko tresna baliodun bakarra dela ere aipatzen dugu.

Aipatu duzu indarkeria erabiltzeko modu ohikoenetako bat hitzez eginikoa dela. Zer portaera-mota nabarmenduko zenituzke?

Matxismoa leku guztietan dago, baita eskaladan ere. Berdin dio emakumea edo beste edozein identitate bazara, oso zaila da dinamika horiek ez iraunaraztea. Kritikoak izan behar gara, eta beste modu batera noiz jardun genezakeen berrikus-tea. Hitzeko indarkeria horietako bat da; adibidez, gure kideari nola tratatu edo askotan nola hitz egiten diogun elkarri. Baina beste indarkeria-mota asko ere badaude; hala nola, eskalada-materialen edo arropen markak 44 neurritik haratago ez egitea. Indarkeria emakume batek bide bat kateatzen duenean maila jaistea da, emakume izate hutsagatik. Indarkeria rokodromora joan eta jendeak zure gorputzari buruz iritzia ematea edo gauzak nola egiten diren esatea ere bada, gizon bezala irakurtzen ez zaituztelako. Indarkeria, halaber, bideetan izen xenofoboak, homofoboak edo arrazistak onartzen jarraitzea da.

Liburu honek kirol hau osatzen duten gorputz ezberdinak eta estereotipoen haustura ere jorratzen du. Zenbateraino sinesten duzu estereotipoek eskaladan duten eraginean?

Hasteko, ez dago gorputz lodien irudikapenik eskaladan. Horri buruz Ainhoa eta Aida lankideek hitz egiten dute, emakume gizen gisa identifikatzen baitira. Erreferenterik ez dago haratago. Ez dago gorputz lodirik rokodromoetan. Horrenbestez, erreferenterik egon ezean, sortzearen alde apustu egiten dute. Izan ere, gu geu ere erreferenteak izan gaitezke gure ingurune-rako.

Zer espero duzu 'Ingrávidas'-etik?

Liburu hau argitaratu izana bera eta prozesuan sortutako sarea bada aski lorpen niretzako. Baina gustatuko litzaidake, edo espero dut, kanpoan geratu ziren eta erabat identifikatu edo islatu ez ziren

identitateak edo gorputzak espazio honek jasotzen dituela sentitzea. Dena den, nire azken urtea definitzen duen hitza "esker ona" izango litzateke. Oso pozik nago sortu denarekin, eta parte hartu duten pertso-nek inplikazio handiarekin egin dutelako. 'Ingrávidas'-en irakur daitekeena bakoitzaren lan pertsonal sakona da. Asmo handia dago idatzitakoan. Ez da edozein idazki. Irakurleek hain gauza pertsonalak eta intimoak islatzeari merezi duen balioa ematea gustatuko litzaidake. Intentsitate handia dago testuetan. Pixkanaka irakurtzen den liburua da beraz, gogoetara eramaten zaituena eta presarik gabe irakurri beharrekoa.

"Indarkeria, halaber, izen xenofoboak, homofoboak edo arrazistak onartzen jarraitzea da"



KIROLA

Azken unera arte borrokatuta

SD Deustok ezin izan du 2. REEF mai-larako igoera lortu. Joan den maiatzaren 21ean, deustuarrek SD Leioaren aurka jokatu zuten play-off faseko itzuliko partidua eta 2-1eko emaitzarekin bukatu zen norgehiagoka. Tentsio handiko partidua izan zen. Izan ere, Etxezuri futbol zelaian bi taldeek jokatu zuten joaneko partiduan 1-1eko berdinketarekin bukatu eta gero, argi zegoen Leioako futbol taldearen zelaian erabakiko zela nor izango zen txapeliduna. Edozein kasutan ere, tomateroek aurtengo denboraldian inoiz baino hurbilago izan dute hurrengo fase-rako igoera. Ligan 5. postua lortu ostean, denboraldi amaierako fase honetan ere aurpegia eman dute azken unera arte, bidean Vitoria futbol taldea (ligako 2. sailkatua) bezalako arerioa atzean utziz.



KULTURA

Kulturaz betetako Udaberria

Berbaizu euskara elkarteak ekitaldi kultural desberdinak antolatu ditu udaberria hasi zenez geroztik. "Udaberri Kulturala"-ren baitan, apirilaren bukaera partetik hasita, plan anitzak eta entretenigarriak antolatu dituzte Berbaizuko langileek. Apirilaren 25ean eman zitzaion hasiera egitasmoari Motx pailazoren eskutik, bertaratu ziren umeentzako aparteko ikuskizuna eskainiz. Hurrengo bi egunetan zehar, Deustuko Gazte Lokalean "Neska" sortzaileen esposaketa" antolatu zuten, emakume artista berriei euren lanak aurkezteko aukera emateko helburuarekin. Ondoren, apirilaren 28an, Darabillborekin batera garagardo dastaketa antolatu zuten, bertaratutakoei garagardoaren xehe-tasunak ezagutarazteko xedez. Azkenik, maiatzaren 12an, karaoke ibiltariarekin eman zioten egitasmoari amaiera.



AUZOAK

San Inaziooko pasealekurako bidegorri eskaera

Bilboko Udalak duela hiru urte baino gehiago inauguratu zuen Deustu eta San Inazio lotzen dituen pasealeku handia. Baina laster hasi dira horren inguruan bizikidetzara-azaroak sortzen. Izan ere, duela hilabete batzuetatik hona, seinaleek ohartarazten dute bizikletak ezin direla inguru horretatik ibili, txirridularien eta oinezkoen artean arazo ugari sortuz. Horregatik, 'Biziz Bizi' plataformak arazoari irtenbidea emateko eskatu dio udalari, pasealeku honetan bidegorri berri bat sortuz. "Deustun, Iruña kaletik desbideratu eta Agirre Lehendakari kaletik joan behar dira bizikletak", azaldu du Biziz Biziko Javier Umaranek. Horrenbestez, Bilboko itsasadarraren parean dauden pasealekuen artean, honako hau da bide gorririk gabeko bakarrenetarikoa.




KULTURA

Arte galeria bat deustun

Joan den maiatzaren 26an arte galeria bat ireki zuen Deustun Omer Zaballa Larumbe artista gazteak Luis Power kaleko 22. zenbakian. Deustuarrak argitu digunez, Grabatugintzan espezializatutako aretoa da. "Grabatua irudiak erreproduzitzeko sistema bat da; egunkarietako errotatibak asmatu arte erabiltzen zena, alegia". Bertan, arte erakusketak ez ezik, teknika honi buruz gehiago jakiteko aukera egongo da. Izan ere, adin guztietako ikasleei dago zuzendua, hasi berri zein espezializatuentzat aproposa izanik. Zaballa, bere aldetik, urteak daramatza arte teknika honetan espezializatzen. "Arte Ederreko ikasketak EHUn bukatu nituenetik, espainiar estatuko zein europako hainbat tokitan izan naiz teknika honen ikerketa eta lanetan. Orain, ordea, gogotsu nago ikasitakoa erakusteko eta irakasteko".





Urtea: 1980

Txema Luzuriaga

Elorrietako Ponpatzailea


Elorrietako Ponpatzaileko makineriaren barruko bista. Ponpatzailea 1885ean Bilboko biztanleek jasan zuten kolera-epidemia larriaren osasun-erantzun gisa sortu zen. 1903an amaitua, honakoa espainiar estatuaren egindako lehen saneamendu modernoa izan zen; berrikuntza garrantzitsuak gehituz, bakteriolisi bidezko arazketa kasu. Recaredo de Uhagonek 1903an proiektatutako Bilboko saneamendu plana Bizkaiko hiriburua garapeneren mugarrietako bat izan zen, eta bere balioa ez da mugatzen soilik gertaera historikora eta ondare arkitektoniko ikusgarriari, baizik eta bertan dagoen makineria interesgarriari ere, 1899an Ingalaterrako James Simpson y Cia enpresak eraikia. Saneamenduak gerra zibilera arte funtzionatu zuen. Ondoren, ponpaketa-sistema erabiltzeari utzi bazion ere, Elorrietako instalazioak ia osorik mantendu ziren — lurrun-galdararik eta tximiniarik gabe — 1992ra arte, metroaren obrak hasi ziren arte.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
billbokoaldizkariak@gmail.com

△ ∇ △ ∇ △
TATTOO STUDIO


Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com 


Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4


Yoki Berrri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintoreria
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua  
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play  App Store
ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA BFA

 Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltea
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Zer gustatuko litzaizuke aldatzea hastera doan legegaldi honetan?



**Brais
Txurdinaga**

Beharrezkoa da errepideak konpondu eta espaloiak zabaltzea mugikortasun urriko pertsonen igarobiderako.



**Karmele
Bergara**

Alokairuen prezioa erregulatzea gustatuko litzaizuke. Gaur egun soldataren zati handi bat bideratu behar dugu etxea ordaintzera.



**Itxaso
Trapaga**

Gustatuko litzaizuke enplegu-politika eraginkorrrak gauzatzea, eta herritarrek beren osasun-sistemaz harro sentitzea berriro.




**Ainara
Arangoiti**

Gazteontzat gero eta zailagoa da Deustun bizitzea, alokairuen eta pisuen prezio altuengatik. Laguntza edo erregularizazioen bat beharko genuke.



**Markel
Deustu**

Plan turistikoa, ez dut nahi Bilbo Donostia bihurtzerik; Kirola eta euskara 14 urtez azpikoetan bermatzeko beharrezko laguntzak; Bilbon bizi ordutegiak;... Adibide zehatzetara joanda gauza asko aldatuko nituzke!



**Gorka
Deustu**

Gazteok gure bizi proiektua aurrera eramateko lekua bilakatzea nahiko nuke Deustu. Bereziki alokairu eta etxebizitzaren problematikari aurre eginez.



harkua bete herna

>> HIZKUNTZA

HAUR HIZKERA, GALTZEAR DAGOEN ERREGISTROA

Haur hizkera desagertzen ari da gutxinaka-gutxinaka urteen poderioz, gure arloko hainbat adituren arabera, nabarmen jaitsi delako haren erabilera. Edozelan ere, desagertze prozesuari (berari) heldu aurretik, ezinbestekoa deritzogu haren nondik norakoak argitzeari zein sakontzeari.

Testua eta argazkiak: Itxaso Sainz Nuñez

Kontu jakina da “ume hizkuntza” edo “haur hizkera” kontzeptuak zalantzarriak izaten direla edo izan daitezkeela. Izan ere, izendapenak berak ez du argi uzten zertaz ari garen. Azken batean, bi adiera zehatz daitezke: ikertzaile batzuen ustez, haur hizkera da umeek hizkuntza osoa guztiz bereganatu baino lehen baliatzen duten hizketa (hau da, berbetan ikasten dabiltzala); beste batzuek, aldiz, haurrei aritzeko moduaz dihardute.

Ikerketek, batik bat, bigarren ikuspegia izan dute oinarri, dena den, ume hizkuntzak zentzu zabalagoa dauka. Hori horrela, helduen moduan mintzatzerira iritsi artean, haurrei ematen zaien “bultzadaxoa” da; tarteko mintzamoldea da, era arruntetik berezia, eta zenbait ezaugarri orokor ditu; hala nola, berezko tresna linguistikoak.

Jarraian, haur hizkeraren bereizgarri nagusienak azalduko ditugu. Lehenengoa begi bistakoa da: umeekin hitz egitean, helduak ohi baino era markatuagoan jarduten dira, oso ondo ahoskatuz, eta normalean baino zuzenago zein motelago; perpausak sinpleagoak izaten dira, (batez ere, galderak nahiz aginduak), eta errepikapenetan oinarrituta; horrez gain, sarritan hirugarren pertsona erabiltzen da. Esaterako, *Ein fu umiak kandelari!* moduko perpausak maiz entzun daitezke. Azkenik, hiztegiari dagokionez, molde bereziak biltzen ditu, batik bat, honako eremu semantiko hauek: animaliak (kurrin-kurrin, “txerria”), ekintzak (tas-tas egin, “ipurdikoa eman”), janari-edariak (nene, “esnea”), gorputz atalak (txirrina, “zilborra”) eta eguneroko objektuak (popina, “panpiña”).

Behin argituta zertan datzan, azter ditzagun haren helburuak: oro har, bi baino ez ditu. Batetik, jomuga pedagogikoa, umeak mezuez errazago ohar daitezten eta, pixkanaka-pixkanaka, mintzaira gara dezaten. Bestetik, asmo didaktikoa: aita-amak erabakigarriak dira umearen hizkuntza jabekuntzan. Horren ondorioz, gurasoak umeekiko eguneroko elkarrizketak bultzatu ez ezik, zuzendu ere egiten dituzte, errepikapenak edota moldaketak eginez. Bakarrik horrela eskura dezakete hizkuntza umeek.

Haur hizkeraz luzean aritu gara; orain, ezagunago dugu eta guraso zein seme-alaben arteko transmisioan duen balioaz jabetu gara. Egia da oraindik bizirik dagoela, baina ez du inondik ere duela hogeita hamar urte inguruko bizitasuna, egun etxeetan gutxi erabiltzen baita. Hori horrela, umei zuzentzeko modu kuttun hori galdutatzen joko dugu? Erantzuna erraz eman daiteke: guztion esku dago, herritarron, irakasleon eta hezkuntzaren esku, bereziki. Hortaz, ekin diezaigun hizketa sustatzeari!





<http://sarekada>

Streaming plataformak ere, EUSKARAZ!

Mundu osoan zerbitzuak eskaintzen duten streaming plataformak ere euskararen aldeko apostua egiten hasi dira. Horien artean, azkena, Spotify musika plataforma izan da. Netflix-ek, aldiz, 2022an euskaratu zituen edukiak.

NETFLIX

2022an onartutako ikus-entzunezko lege berriak streaming plataformak behartu zituen, hizkuntza ofizialaz gain, zeinbait izenburu hizkuntza koofizialetan ere eskaintzen. Hori dela eta, Netflix-ek eduki asko euskaratu zituen. Honela, 70 izenburu baino gehiago aurkitu ditzakegu euskaraz, eta urtero izenburu berri gehiago gehitzen joango da plataforma ezaguna.



Suediako enpresak iragarri duenez, lehendik erabilgarri zituen 63 hizkuntzei beste 11 gehitu dizkie; hala nola, euskara eta galegoa. Hizkuntza berri horiei esker, erabiltzaileak “esperientzia pertsonalatuagoa” izatea lortu nahi dute. Plataforma euskaraz izateko, mugikorraren ezarpenak euskaraz jarri beharko ditu erabiltzaileak.

HEZKUNTZA EZ-FORMALA

Azken hilabeteetan, behin eta berriro ari da izaten mintzagai zaintzaren afera, eta zuzeneko lotura duen zerbitzu publikoen aldarria. Honetaz ari garela, ezin alde batera utzi Hezkuntza. Gero eta jende gutxiagok jar dezake kolokan egungo ikaste-irakaste prozesuek dituzten erronkak: gurea den Hezkuntza Sistema Euskaldun baten falta, Sistema publiko eta pribatuen arteko lehia eta honek dakarren segregazioa, eta abar luzea. Hau dena ez da berria, hezkuntzan arituak direnek urteak daramatzate egoera honen salaketan, orain pil-pilean badago ere, pandemiaren ondorioek eta Mugimendu Feministak zaintzak erdiguneratzeagatik, batik-bat. Alabaina, bada Hezkuntza Komunitateetako alderdi bat sarritan alde batera utzia dena, egintzat jota edo, duen berezko zaugarritasuna kontuan izan gabe. Aisialdiko hezkuntzaz ari naiz.

Testua: Jon Ander Ituarte

Azken hilabeteetan, behin eta berriro ari da izaten mintzagai zaintzaren afera, eta zuzeneko lotura duen zerbitzu publikoen aldarria. Honetaz ari garela, ezin alde batera utzi Hezkuntza. Gero eta jende gutxiagok jar dezake kolokan egungo ikaste-irakaste prozesuek dituzten erronkak: gurea den Hezkuntza Sistema Euskaldun baten falta, Sistema publiko eta pribatuen arteko lehia eta honek dakarren segregazioa, eta abar luzea.

Hau dena ez da berria, hezkuntzan arituak direnek urteak daramatzate egoera honen salaketan, orain pil-pilean badago ere, pandemiaren ondorioek eta Mugimendu Feministak zaintzak erdiguneratzeagatik, batik-bat. Alabaina, bada Hezkuntza Komunitateetako alderdi bat sarritan alde batera utzia dena, egintzat jota edo, duen berezko zaugarritasuna kontuan izan gabe. Aisialdiko hezkuntzaz ari naiz. Haur eta gazteek dagoeneko eskola hezkuntza "formala"-rekin lotzen dute, bere esanahirik as-

pergarrienean. Derrigorrezkoa izanda, ikasketa-prozesuaren zentroa ebaluazioa izanik, eta haiek eragile pasibo hutsa direlarik, esan dezakegu ez dela testuingururik erakargarriena ikasketa prozesu esanguratsua lortu ahal izateko. Kontran, astialdiko hezkuntzak, hezkuntza ez-formalak, berezitasun ugari ditu ikasketa-egoera ezin hobeak sortzeko tresna paregabea delarik.

Kontuan izan behar dugu, lehenik eta behin, hezitzaile taldearen ezaugarriak guztiz desberdinak direla; gazte talde boluntario (militante) eta guztiz autogestionatua. Era horretan, hezitzaile eta parte-hartzaileen harremanetan linbo izugarri interesgarria sortzen du honek, ez baikara gurasoak edo irakasleak, baina ezta haien lagunak ere, lerro fin horrek zabalera nahikoa baitu konfiantzazko harremanak sortzeko, beti ere, erreferentzialtasuna eta errespetua alde batera utzi gabe.



Beste alde batetik, hezitzaile taldeak kudeatzen du haien hasierako formakuntza, eta baita etengabekoa ere. Honek hein batean taldea babesgabe utz badezake ere, honen kudeaketak daraman lan-zama medio, taldearen baliabideak parte-hartzaileen premiei bideratzen ditu uneoro, erabateko autonomiarekin taldetik-taldera. Hots, hezitzaileek taldearen hezkuntza proiektua bere osotasunean diseinatu eta eraldatu dezakete, egoeraren eta belaunaldiaren arabera, haur eta gazteen errealitateari hurbilduz.

Gainera, hezkuntza-eredu komunitarioa sustatzen du, auzo edo herriarekin harremana zuzena delarik, eta baita familien parte hartzea ere. Astialdiko hezkuntzak bereizgarri du jokoek bere baitan duten pedagogia; hain zuzen, gazteek horietan hartzen duten rol aktiboaren bitartez. Hau da, hezitzaile taldeak ezarritako helburu eta edukiak sarritan ia konturatu gabe lantzen dira. Honek, esan bezala, eragin zuzena du motibazioan, kontzeptuen barneratzeko eta aplikatzeko gaitasunean (euskalduntze prozesuan, adibidez) eta parte hartzeko gogoan. Gainera, haien prozesua

euren esku izatearen usteak jarrera kritikoak izateko joera sustatzen du, gerora gizartean parte hartzera bultzatuta.

Azken finean, edozein hezkuntza prozesuren helburu nagusiak gizarteratzea beharko luke izan. Honekin loturik, astialdiko hezkuntzak batzuetan eskolan hankamotz geratzen den balioetako hezkuntza eskaintzen digu; pertsona, aske, kritiko eta parte-hartzaileak sortuz. Bukatzeko, astialdiko hezkuntzak askotariko errealitate eta tesuinguruak bizi dituzten pertsonekin elkarlanean aritzeko aukera dakar, norberarenarekin kontrastea jaso ahal izateko, garapen prozesuan ezinbestekoa dena. Beste eskola, auzo edo herrietako jendea ezagutzeko aukera dakar, eta bakoitzaren mundua zabaltzekoa ere.

Deustualdean badira hainbat astialdi talde jardunean dabiltzanak, akaso behar besteko babesik jaso gabe. Bitartean, eskolak denok dakigun gainzama ezin kudeaturik. Eskolek eta astialdi taldeek asko dute eskaintzeko; ez al da garaia elkarrekin hitz egiteko?





PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Kuiatxo-txiki pintxoa

Lasaitasuna eta familia giroa nagusi, San Inazioko Txikia Tabernan

Urteak igaro dira Josek Txikia Tabernaren jabetza bere gain hartu zuenetik. San Inazio elizako plazan dagoen giro ona eta lasaitasuna, tabernan eskaintzen duten tratu familiarraren isla da. Orain, Gorkak ere lan egiten du tabernan, aitaren lekukoa hartuz eta beti zaindu izan duen filosofiari zintzo jarraituz: umore onez eta auzotarrak zainduz. Aritz, Fran eta Marianekin batera, tabernak pintxo apartak eskaintzen ditu; hala nola, 'Kuiatxo-txiki' pintxoa.

Prezioa: 1,40€

Zailtasuna: txikia

Denbora: 10 minutu

Kontu batzuk

Tabernak egun osoko ordutegia du: 08:00etatik, 23:00etara. Hala ere, ostiraletan eta larunbatetan zertxobait gehiago ematen du zabalik. Horrekin batera, pintxo ugari izaten ditu aste osoan zehar, baita gosari eskaintza bereziak ere. Aldiz, 'Kuiatxo-txiki' pintxoa asteburuetan bakarrik dago eskuragarria.



TXIKIA TABERNA

Baztan Haranaren plaza 4, San Inazio

Astelehenetik ostegunera
8:00-23:00

Asteburuetan
8:00-00:00



Nola egin?

Lehenik eta behin, hiru kuiatxo zatiak moztu eta arrautza-irinetan pasa behar dira. Jarraian, gulak erregosi pikilloarekin eta urdaiazpiko txikitxo batekin batera. Erregositako gulei, bexamel fin bat egingo diegu. Azkenik, gatz pixka bat bota eta modu honetara prestatuko dugu pintxoa, behetik gora ordenatuta:

1. Ogia
2. Kuiatxo zatia
3. Urdaiazpikoa
4. Kuiatxo zatia
5. Gulak
6. Kuiatxo zatia
7. Gulak

OSAGAIK

Kuiatxoa

Urdaiazpikoa

Gulak

Pikillo piperra

Gatza

Olio

Ogia



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean

**ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO**

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



DANEL ABANDO OLABARRI

Irakurzailea

IRAGANAREN XUXURLA

Errebolberra, tiro-hotsa. Errusia hegoaldeko estepa idorretik garaño zurian trostan doan zaldunak gorpuzten du Alexander Wolfen *mamua* eleberriko protagonistaren zorigaitzoko bizitza. Izan ere, heriotza bera baino hilgarriagoa izan baitaiteke amaierarik ez duen damua, bizialdi bat zeharo baldintzatu eta jasanezinezko sentipen bilakatzeraino. Iraganean harrapaturik bizitzea, hilik egotea baita.

Errusiar literatur tradizioari jarraiki, pertsonaien izaera existentzialistak eta horien psikologian sakontzeko joerak ezaugarritzen du Gaito Gazdanoven istorioa. Protagonista, Errusiako Gerra Zibilean armada zuriarekin borrokatu eta gero Parisen bizi den migrante errusiarra, zorionik eta esperantzarik gabe bizi da, iraganeko gertakizunetatik ihesi, etorkizun hoberik irudikatu ezinik. Orduan, gutxien espero duenean, maitasunak piztuko dio itxaropenerako txinparta: boxeo borroka batean ezagutuko duen Elena Nikolaievna aberkideak eskainiko dio, etsipenezko lozorrotik atereaz, bizitzaz gozatzeko aukera berria.

Azkeneko, thriller baten moldeak hartuz, istorioko protagonistak maitasun eta heriozko besarkada batean urtuko dira, pasioz, azken dantza egiteko erabakitasunez. Azken finean, esana du protagonistaren irakasleak: “baldintza batekin ematen zaigu bizitza, azkeneko arnasa arte kemenez defendatzeko baldintzarekin”. Errebolberra, tiro-hotsa. Patuak hitz egiten duenean, haren esana egitea besterik ez baitago.

ZAINTIRATU

Doinua: Maritxu nora zoaz



LEIRE CARRANZA RAMIREZ

Elorri bertso-eskolako kidea

Antzinako jakintza
nahi dut konpartitu
sendabelarren gaiak
E(g)in gaitu elkartu
1go klase hontan
dugu ZAINTIRATU:
Esguinzeak zaintzeko
bai modu sakratu.

ZAINTIRATU egiteko
Plantainak zuk batu,
baina hartu aurretik
baimena eskatu.
Oliotan epeldu,
Ta orkatilan patu,
ta mina desagertu
Hitz hauek aipatu:

**“Zan tiratu,
zan urratu
zana bere lekuan
sartu”**



EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta
Deustualdeko euskalgintza.
20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari.

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!

Berbaizu
— euskara elkartea —



**bilbon
euskaraz**

Bilboko kaleetan gero eta gehiago entzuten da

ZER DA?

B
Bilbao

E S K A

PREST! aldizkarian idatzi nahi duzu?



**Auzoan egiten diren ekintzen inguruan,
zure taldeak antolatzen dituen ekimenen
inguruan, kezkatzen eta harritzen zaituzten
gauzen inguruan, kolektiboan zein indibidualki
idatzi nahi baduzu...**

Zure bila gaude!

**Idatzi bilbokoaldizkariak@gmail.com helbidera
edo deitu 94 447 10 42 telefono zenbakira**